

## EDITORIALA

# Kongresuaren atarian

Aspalditik gabiltza Kongresuaren inguruko makina lanetan eta, prestaketa operatiboaren lanaz aparte, azken hilabeteak oso epealdi trinkoa eta emankorra izan dira sindikatuaren hausnarketak eta estrategiak alderatu eta partekatze-ko militante ugariekin. Horren erakuslea da ponentziak zehazten duen lau urtetarako ildo estrategikoak eztabaidatzeko ikastaroetan parte hartu duten ia hiru mila militanteen iradokizun eta ekarpenak. Ezin izan beste modura eta egoera ekonomikoa, negozio kolektiboa eta antolakuntza dira, letra larriz, ponentziaren gako nagusiak.

Bestalde, hurbileko abaguneari erreparatzen dioten bederatziren bat ebazpen ere aurkeztuko dira Kongresuaren oniritzia jaso dezaten. Hauetan, gai zehatzekiko diagnostikoaren ondoren, Kongresuak ebazten du nolako jardunbidea eramango duen ELAk gai horietan. Beraz, ponentziaren bidea sakondu eta zehaztu egiten dute hainbat gaietan. Gure hausnarketan laguntzeko ere, Kongresuaren bezperarako mintegi berezia prestatu dugu bertako eta atzerriko mintzakideekin, aliantza sindikal eta sozialen inguruan.

Gure kongresura hurbilduko diren makina erakunderen baiezta-pena iritsi zaizkigu dagoeneko, bai kanpoko eta bertakoak ere. Parada egokia izango dugu aspaldiko lagunekin elkartu eta solaserako astia hartzeko. Eta aipatzeke ezin utzi azken hamarkadetan sindikatuan itzeleko ekarpena eta berebiziko itzala duen Valentín Bengoari egin-goa zaion omenaldi xumea. Ez da Valentín izan laudorioen zalea, lana isilaren ehulea baizik. Hala ere, ELAk bere momentua eskaini nahi izan dio Valentín lagunari.

Gure konpromisoak indarberri-tu eta proiektua sendoturik irten behar du Kongresutik. *Lankidetu* goiburuaren atzetik erreskadan euskal langileak lerrotzekin ahaleginak eta bi egin behar ditugu. Ez dago lan presazkoagorik gure organizazioan euskal langile klasearen interesak defendatzeko. Hori da gure erronka.

## ELAren XIII. Kongresu Konfederala ate-joka dago; urtarrilaren 23an eta 24an da hitzordua Bilboko Euskalduna Jauregian

# ETORKIZUNEN PROIEKTUAREN GILTZA

ELAren XIII. Kongresua ate-joka dugu. Hitzordua, jakina den bezala, Bilboko Euskalduna Jauregian izango da, urtarrilaren 23an eta 24an. Kongresuan parte hartuko duten sindikatuko 736 ordezkariak hiru eginbide nagusi izango dituzte bi egun horietan zehar: kargua uzten duen Batzorde Eragilearen txostena bozkatu, datozen lau urtetan ELAren ildoak izango den txosten nagusia eta egindako ebazpenak bozkatu eta, azkenik, Batzorde Eragile berria hautatu.

ELAren komunikazio arduradun Patxi Agirrezabalak nabarmentzen duenez, dena prest dago jada. "Kongresua une egokia izan ohi da egiten ari den lanari buruzko gogoeta egin eta etorkizunerako prestatze aldera. Datozen garaietan arazoak handiak dira, baina baita hobera egiteko aukerak ere. Horixe izan da ELA sindikatuaren bitzita duela mende bete baina gehiago. Eta prozesu guzti horren prestakuntzan Kongresuak berebiziko garrantzia du".

ELAren Kongresuak bi eguneko iraupena izango du. Baina Kongresuaren prestaketa hilabete askotako lana da. "Ponentzia prestatu, eztabaidatu, langileekin partekatu, ebazpenak garatu, egindako ehunka ikastaroak... Azken hilabete luze hauetan lan handia eta polita egin dugula uste dut. Orain falta den bakarra aspaldi hasi genuen bide horri behar bezalako amaiera ematea da".

### NAZIOARTEKO ORDEZKARITZA ZABALA

ELAren izenean Bilbon egongo diren 736 ordezkariak gain, nazioarteko sindikatuen presentzia garrantzitsua izango da. "Biziki eskertu nahi ditugu -gaineratzen du Agirrezabalak- bai Euskal Herriko bai mundu zabaletik datozen sindikatuak. Bertako sindikatuen artean LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta ELBko ordezkariak hartuko dute parte. Askotan aipatu dugun bezala, bestelako gizarte-eredu bat aurrera eraman nahi badugu ezinbestekoa da asmo bera dugun sindikatu eta gizarte-eragileekin elkarlanean jardutea. Atzerriko sindikatuen presentzia ere biziki eskertzen dugu. Asko ikasi dugu euren jardunetik, eta bereziki klandestinitatearen garaian horietako askok izugarritzko laguntza eman ziguten, zentzurik zabalenean. Lagun handiak dira guretzat, eta ohore bat da CSC (Belgika), TUAC, LANE, CSN-Quebec, UGT-Sario, STUC (Eskozia) zein



Galizako CIG sindikatuaren ordezkariak, besteak beste, gure artean izatea".

### FORMAZIOAREN GARRANTZIA

ELAk beti garrantzia handia eman dio formazioari. Komunikazio arduradunak nabarmentzen duenez, Kongresuaren atarian gai honek protagonismoa izango du. "Urtarrilaren 22an, asteartea, nazioarteko hainbat lagun Kongresura etorriko direla baliatuz, formazio jardunaldia egingo dugu EHUK Abandobarran duen paraninfoan, 15:30etan. *Aliantza sindikal eta sozialak, harrapaketa neoliberalari aurre egiteko ezinbesteko estrategia* izango da nazioarteko mintegi honen leloa, eta Adolfo Aguirre -CTA-Argentina-, Jacques Letorneau -CSN Quebec- eta Eric Toussaint -CADTM- mintzatuko dira".

Guztia prest, beraz XIII. Kongresurako. Lankidetzeko ordua heldu da!

## PROGRAMA

### MIÉRCOLES 23 DE ENERO

08.00 - 09.00 Acreditación de las delegadas y delegados.

09.00 - 09.30 Sesión de Apertura.

09.30 - 09.45 Elección de la Mesa. Apertura del Congreso por parte del Presidente o Presidenta de la Mesa.

09.45 - 10.00 Presentación de las organizaciones invitadas (sindicatos y organizaciones extranjeras, sindicatos del estado, sindicatos vascos y otras organizaciones).

10.00 - 10.30 Intervenciones de representantes de la CSI y la CES.

10.30 - 12.00 Informe del Comité Ejecutivo saliente.

12.00 - 12.30 Pausa café.

12.30 - 13.20 Informe del Comité Ejecutivo saliente.

13.20 - 13.30 Intervención CSC.

13.30 - 15.30 Pausa comida.

15.30 - 19.15 Intervenciones de las organizaciones de ELA, réplica y votación del informe. Se intercalará una tanda de intervenciones de organizaciones invitadas (TUAC, OIT, CES, CSN-Québec, UGT-Sario, STUC, CIG).

19.15 - 19.30 Homenaje a Valentín Bengoia.

### JUEVES 24 DE ENERO

08.30 - 09.30 Acreditación de las delegadas y delegados.

09.30 - 10.10 Presentación de la Ponencia general.

10.10 - 11.30 Discusión.

11.30 - 12.00 Pausa café.

12.00 - 12.30 Intervenciones de EHNE, ELB, ESK, STEE y LAB.

12.30 - 12.50 Continuación del debate y votación del texto.

12.50 - 13.54 Presentación y aprobación de las resoluciones.

13.54 - 14.30 Presentación y elección del Comité Ejecutivo.

14.30 - 16.30 Pausa comida.

16.30 - 16.35 Presentación de la Ejecutiva.

16.35 - 17.00 Intervención del Secretario General.

17.00 - 17.30 Clausura del Congreso.

Lankidetu!


# EBAZPENAK: PONENTZIA ABERASTUZ

XIII. Kongresu Konfederalaren zeregin nagusienetakoa datozen lau urteetarako sindikatuaren ardatza izango den ponentzia onartzea izango da. Ponentzia osatu eta

aberastu aldera, bilduko diren ordezkariak Kongresuan aurkeztuko diren bederatzik ebazpen ere bozkatuko dituzte. Ebazpenek gaurkotatasunarekin eta egungo abaguneare-

kin loturiko gaiak jorratzen dituzte. Astekariaren ale honetan horietako lau laburbilduko ditugu; gainontzekoak, berriz, hurrengo alean landuko ditugu.

## BIDEGABEKO ZORRA ORDAINTEARI UKO. EZ DA BIDEZKOA ORDAINTEA, ETA EZ DUGU ORDAINDUKO



**D**emokrazia zor zaigu, baina zorpeko sasi-demokrazian bizi gara. Deudokrazian. Zor publikoa menderakuntza politikorako tresna bihurtu da, murrizketa ezin bortitzagoen politikak arrazoitzeko eta aberastuaren banaketa are bidegabeagoa ezartzeko. Zorpeko sasi-demokrazia horren funtsa da zor publiko handia sortzea (zor pribatua zor publiko bihurturik), krisia eragin dutenak hartzekodun bihurtzea, eta zorraren ordainketa beste guztiaren gainetik lehenes- tea.

Beharrezkoa da zor hori sorrarazi duten arrazoiak aztertzea. Nazioarteko zuzenbideak eta jardunak jasotakoaren arabera, gobernuen zorra legez kontrakoa izango da, baldin eta pertsonen duintasunari eraso egiten dioten edota herrien arteko bizikidetzak baketsua arriskuan jartzen duten maileguetatik bada- tor. Zor ez-legitimoa dira erabaki bidegabeetan oinarritutakoak, interes orokorarekin bat ez datozen erabakietan, herritarren bizkar hartutako erabakietan.

Erakundeek gero eta zor publiko handiagoa pilatu dute azken urteotan. Hauek dira zorraren hazkunde horren arrazoiak:

■ **Bankuen erreskateak.** Espainiako gobernuak, baita Europar Batasuneko beste zenbait herrialde- tako gobernuak ere hainbat mila milioi euro bide- ratzen ari dira bankuetara. Espainiakoak 216.000 milioi euro (BPGd-aren %21) bideratu ditu finantza-erakundeetara hainbat bidetatik, 2012ko azarora arte. Euskal erakundeek diru horren ehune- ko handi bat finantzatzen dute EAEko Kupoaren eta Nafarroako Ekarpeneren bidez: EAEk, zenbate- koaren %6,24 (13.478 milioi euro), eta Nafarroak, %1,6 (3.456 milioi).

■ **Zerga-politika bidegabea ezarri izana.** Diru- bilketak behera egin du eta, horren ondorioz, han- ditu egin da zorra. Hego Euskal Herriko lau ogasu- netan izugarri jaitsi dira diru-sarrerak, eta horren arrazoi bakarra ez da krisia, zerga-arloko politika baizik. Presio fiskala nabarmen murriztu da, Euro- pako beste zenbait lekutan ez bezala, iruzur fiska- laren eta azken urteotan zerga-arloan onartutako erreformen ondorioz, eta horrek ekarri du errenta altuei eta kapitalari ezarritako zergak murriztea.

■ **Diru kopuru izugarriak bideratu dira azpie- gitura eztabaidagarriak finantzatzera.**

■ **Gobernuen ukoa Europako Banku Zentralak (EBZ) interes-tasa baxuan finantza ditzan era- kundeak.** EBZk %1eko interes-tasan mailegatu die dirua banku pribatuei eta banku horiek diru hori bera erabili dute gobernu- %5ean edo gehiagoan mailegatzeko.

Zor publikoaren hazkundeak ez du batere zerikus- rik gastu sozialaren hazkundearekin. Zor hori nondik datorren kontuan hartuta, okertzeko beldurrik gabe esan dezakegu zor bidegabea eta ez-legitimoa dela neurri handi batean. Beharrezkoa da herritarren alde- tik zor publikoari buruzko auditoriak egitea. Zorren auditoria zor horien jatorria aztertze- ko prozesua da: zergatik sortu ziren, zertarako balio izan zuten, nori egin zien mesede, zenbateraino izan ziren gardenak, irregulartasunik izan zen ala ez, etab. Auditorien hel- burua da zehaztea egindako zorraren zer parte den

legitimoa eta zer parte ez, ondoren zati ez-legitimo hori ez ordaintzeko.

Zor ez-legitimoa ez ordaintzea ez da ameskeria. XXI. mendean baditugu esperientziak, hala nola Argentinakoa, 2001ean, Ekuadorkoa, 2007an, edo Islandiakoa, 2011n. Zorraren auditoriak eta zati ez- legitimoa ez ordaintzeak bide ematen dute gaur egungo eredu ekonomikoa sustraitik ezbaian jartzeko. Ordea, ez da aski legitimoa ez den zorra ordaintze- ri uko egitea. Beharrezkoa da eredu ekonomikoa errotik aldatzea; gainerakoan, berriz ere zorra sortuko da botere ekonomiko eta finantzarioen zerbitzura. Neurri zorrotzak behar dira: goitik beherako erreforma fiska- la, azken hamarkadetan zerga-arloan egin den politi- ka atzeraraziko duena; finantza-sektorearen erregula- zio sendoa, espekulazioa eta paradisu fiskalak galara- ziz; banku publikoa; soldata murrizketarik gabe lanal- dia murriztea eta hori konpentsatzeko enplegua sortzea; ondo bizitzea bai, baina gaur egungo haz- kunde-eredu erabat eutsiezina gaindituz.

**ELAren XIII. Kongresuak ebatzi du:**

- Erakundearen konpromisoa herritarren aldetik zorraren auditoria-prozesuak bultzatzeko eta gizar- teratzeko, prozesu horietan gizartearen parte-har- tze zabala sustatuz, eta zorraren zati ez-legitimoa ez ordaintzea exijituz. Alde horretatik, datozen hilabeteetan gai horri buruzko sentsibilizazio-kan- paina egingo du ELAk, langile guztiei, eta oro har, gizarte osoari bideratua. Prestakuntza arloan lan zehatza egingo dugu gure militanteen artean.
- Mobilizazio sozialeko prozesuak bultzatzeko beharra, administrazio guztiei exijitzeko behar den informazioa eman dezatela eta zorraren zati ez- legitimoa ez ordaintzeko konpromisoa har dezate- la. Gutxien-gutxienez Eusko Jaurlaritzara, Nafarroa- ko Gobernura eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoa- ko Foru Aldundietara eraman behar dugu eskaki- zun hori.
- Ekimen horiek gauzatzeko beharrezkoak diren gizarte-aliantzak sortzea eta ehuntzea.

## ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA, URRATUTAKO GIZA ESKUBIDEA

**M**ilaka eta milaka pertsonak etxebizitza izateko eskubidea urratu dute. Etxegabetutako pertsona eta familien egoera da horren adibide. Hego Euskal Herrian 8.000 etxegabetze baino gehiago izan dira 2008. urteaz geroztik. Etxerik gabe geratutako jende- aren egoera etsigarria da. Kasu gehienetan, etxebi- zita galtzeaz gain, bankuarekin zor handia izaten jarraitzen dute, eta horri gehitu behar zaio finantza- erakundeek ez ordaintzeagatik ezartzen dituzten inte- res altuak eta muturreko baldintzak.

**Egoera horren aurrean, ELAren XIII. Kongresuak ebatzi du:**

- Nafarroako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiei eta Udalei exijitzea erabat alda dezatela etxebizitza-politika, oinarri hauek ardatz harturik:
- Pertsona guztiek alokairuko etxebizitza duina izateko duten eskubidea aitortzea. Pertsonak aukera

izan behar dute administrazioari eskubide hori modu eraginkorrean eskatzeko.

- Alokairu sozialeko etxebizitzaren parke publikoa sortzea, pertsona guztiek etxebizitza izateko duten eskubidea bete ahal izateko.
- Etxebizitza hutsen gain esku hartzea. Etxebizitza horiek gizartearen beharretara bideratzen lagundu- ko duten neurriak bultzatu eta sustatu behar dira. Finantza-erakundeak derrigortu egin behar dira espekulazioaren bidez eta etxegabetzeen bidez eskuratu eta pilatu dituzten etxebizitzak alokairu sozialean jartzera.
- Etxegabetzei ez. Inor ezin da bere ohiko etxebi- zitzatik kanporatu baliabide ekonomikoak falta dituela-eta hipoteka edo alokairua ezin dituelako ordaindu.

• Ordainean ematea. Hipoteka ordaindu ezin dute- nek aukera izan behar dute etxebizitza bera ordai- nean emanda zorra kitatzeko, gerorako zorrik utzi gabe, eta etxebizitza horretan jarraitzeko alokairu sozialaren truke.

• Etxebizitzaren arloan inbertsio publikoa handit- zea. Aipatutako irizpideetan oinarritutako etxebi- zita-politikara bideratutako partidak nabarmen han- ditu behar dira aurrekontuetan, etxebizitza eroste- gatik zerga-arloan ezartzen diren kenkarien orde- z gaste publikoaren lehenetsiz.

• ELAk lan egiten duen esparruetan eta eremuetan etxebizitza duina izateko eskubidearen aldeko eta etxegabetzeen eta gizarte-murrizketen aurkako kanpainak eta mobilizazioak bultzatzea, 2012ko azaroan Barakaldon, Bilbon edota Iruñean gauzatu- tako manifestazioen ildo berean.

# POR UN PROCESO SINDICAL DE ACUMULACIÓN DE FUERZAS POR LA JUSTICIA SOCIAL Y LA SOBERANÍA



El resurgir de dos potentes movimientos a favor de la independencia en el seno de Europa, como son los de Cataluña y Escocia, constituye un motivo de enorme satisfacción. Esos dos ejemplos y otros muchos demuestran que también en el siglo XXI los pueblos no están condenados a aceptar como inmutables las dominaciones del pasado y que pueden decidir de manera democrática y pacífica recorrer otros caminos.

La involución centralista debería propiciar la realización de diagnósticos y propuestas compartidas entre las fuerzas abertzales. No hay posibilidad de cambio político ni con el PP ni con el PSOE, como se ha demostrado en Cataluña y en Euskal Herria de manera muy clara.

Al mismo tiempo, la negativa a utilizar las mayorías abertzales existentes en muchos ámbitos institucionales para dar determinados pasos muestra la falta de voluntad para avanzar en términos de confrontación democrática para la construcción nacional. ELA observa con preocupación que la lucha partidista por la hegemonía y la pugna electoral dentro del espacio abertzale se imponga a cualquier hipótesis de colaboración mínima.

Más allá de estas limitaciones ELA considera que el sindicalismo abertzale constituye un enclave donde puede tomar cuerpo un ciclo de acumulación de fuerzas orientado a la consecución de las mayores cotas de soberanía y justicia social. Sin despreciar otros, creemos que el sindical es el ámbito en el que de manera más firme se acredita esta voluntad, refrendada a través de una importante afiliación e implantación en el mundo del trabajo, y una representación mucho mayor que la del sindicalismo español.

Pero esas potencialidades del sindicalismo abertzale, en nuestra opinión, sólo serán realizables si la política que se reclama transformadora asume, hasta las últimas consecuencias, que el movimiento sindical y social debe construirse de manera no-subordinada a otras exigencias. Esta no-subordinación política del sindicalismo y del resto de movimientos sociales, su plena autonomía, lejos de ser un autismo social y político, constituye para ELA, el punto de partida ineludible para la consecución de alianzas eficaces en pos de sus objetivos nacionales y de clase.

Esa autonomía, insistimos, no es un capricho, sino que tiene, cuando menos, dos razones de ser. Por una parte, la de desbordar y arrastrar a la clase política y a las instituciones a través de la movilización social. Si algo demuestra la reciente historia de Cataluña y Euskal Herria es que los parlamentos, siendo necesarios, son insuficientes por sí solos para realizar el cambio político y social. El catalán es un magnífico ejemplo de cómo el empuje social obliga a las élites políticas a incorporar una agenda soberanista que no tenían prevista. Por otra parte, creemos que es urgente que el soberanismo cale en capas sociales más amplias que las actuales. Para ampliar su extensión en el seno de la ciudadanía debe hacerlo desde la formulación de un proceso que vaya ligado a contenidos sociales.

Creemos que el sindicalismo abertzale de contrapoder, en alianza con el resto de movimientos sociales, puede constituirse en un auténtico enclave hegemónico en pos del cambio político y social. Ahora bien, este sindicalismo sólo seguirá encontrando legitimidad en el mundo del trabajo si es capaz de desa-

rollar de manera coherente una crítica de las políticas neoliberales, las plantee quien las plantee. Más allá de las aritméticas electorales, es posible usar los resortes de poder institucional para realizar una labor de pedagogía progresista y propiciar auténticos cambios culturales y sociales. Ambas dinámicas, contrapoder y poder, de manera estrictamente autónoma pero dialécticamente, pueden dar como resultado, a medio y largo plazo, auténticos cambios sociales y políticos. Pero esos cambios no llegarán si desde el poder no se entiende la legítima interpelación de sindicatos y movimientos sociales.

En este sentido, y mirando al más corto plazo, ELA cree que la crudeza de las políticas que se vienen aplicando y sus graves consecuencias constituyen una oportunidad para hacer un uso de la soberanía orientado a la justicia social. Y en el contexto de imposición antidemocrática de las políticas de ajuste, ELA cree que sólo desde la desobediencia y la confrontación democrática es posible dar pasos para ganar la soberanía y la justicia social.

## Por ello, el XIII Congreso Confederado resuelve:

- Instar al conjunto de las instituciones vascas a plantarse y desobedecer las directrices y decretos del gobierno de España que suponen un recorte de derechos y un aumento de la desprotección social. Creemos que desobedecer es una apuesta por la soberanía que conecta, de forma útil, con las necesidades y aspiraciones de la mayoría de la sociedad.
- Emplazar al sindicalismo abertzale, y por lo tanto autoemplazarnos, a un debate en profundidad, que pueda dotarle de una estrategia más ambiciosa en la negociación colectiva, en las políticas públicas y en las cuestiones que tienen que ver con la democracia, el marco vasco de relaciones laborales y la soberanía nacional.
- No difuminar, bajo ningún concepto, y como venimos haciendo, la crítica a las políticas neoliberales que desarrollen las instituciones, gobierne quien las gobierne.

## GARANTIZAR LA DIVERSIDAD AFECTIVA Y SEXUAL TAMBIÉN ES UNA CUESTIÓN SINDICAL



El sistema capitalista es un sistema de dominación. Como tal, convive con otras dominaciones, cuando no las promueve, siempre en función de sus propios intereses. Esa dominación se ejerce con violencia y convierte en norma pautas uniformes y uniformizadoras en todas las dimensiones de la vida, incluida la dimensión sexual. Así, la heterosexualidad se convierte en el prisma dominante de ver la vida, y se invisibilizan y se combaten otras opcio-

nes sexuales como la homosexualidad, el lesbianismo, la transexualidad y la bisexualidad.

La fobia hacia las personas LGTB permea todas las estructuras sociales y económicas y el mundo del trabajo no es una excepción. No es fácil hacer una valoración cuantitativa en torno a las dificultades de inserción o las condiciones laborales de los colectivos LGTB, pero no cabe duda de que la discriminación laboral de estas personas es una realidad: tienen dificultades de visibilizar su opción sexual, se enfrentan a obstáculos para su entrada al mundo laboral y posterior promoción, en numerosas ocasiones no se les renueva el contrato laboral o son despedidas injustificadamente, sufren situaciones de acoso laboral, se ven obligadas a renunciar a derechos laborales que dependen de hacer pública su vida afectiva y sexual...

ELA considera necesario reforzar su compromiso con los derechos de los colectivos LGTB, reafirmando en su condición de sindicato de clase comprometido con la defensa de todas las trabajadoras y trabajadores (sin hacer distinción de su origen, edad, género u opción e identidad sexual), y de un modelo de sociedad donde la diversidad afectiva y sexual pueda desarrollarse en libertad.

En una coyuntura como la actual, en la que la ofensiva neoliberal es a su vez neoconservadora en lo moral, garantizar la igualdad de trato y oportunidades para todas las personas en el ámbito laboral y social resulta un principio irrenunciable para ELA.

### Por todo ello, este XIII Congreso resuelve:

- 1. Reforzar en nuestro discurso político y sindical la exigencia de la

plena igualdad de derechos de las personas LGTB.

- 2. Sensibilizar a la militancia y normalizar en el sindicato las distintas manifestaciones de la diversidad afectivo-sexual.
- 3. Trabajar para prevenir y eliminar la homofobia, lesbofobia y transfobia en los centros de trabajo, fomentando un contexto respetuoso con la visibilización de las distintas opciones sexuales e identidades de género.
- 4. Incorporar en la acción sindical y en la negociación colectiva la exigencia de la plena igualdad de derechos de las trabajadoras y trabajadores LGTB y la erradicación de todo tipo de discriminaciones, así como cláusulas específicas sobre diversidad sexual.

Visto para sentencia el juicio que enfrenta a dirección y sindicatos por las tablas salariales

## ELA EXIGE A MERCEDES QUE PAGUE LOS ATRASOS DEL 2010-2012



Delegados/as y trabajadores y trabajadoras de Mercedes-Benz se concentraron el miércoles 9 de enero ante los juzgados de Gasteiz en protesta por la decisión de la compañía de optar por la vía del litigio para intentar evitar el pago a la plantilla de las cantidades que le corresponde en función de una sentencia del TS de febrero del 2012. Ese mismo día de la concentración—9 de enero— se celebró el juicio que enfrenta a dirección y sindicatos por las tablas salariales.

El conflicto radica en la diferente interpretación de la sentencia dictada por el Tribunal Supremo, en la que se resolvía que Mercedes había aplicado mal las subidas

salariales en 2008 y 2009 y debía abonar a los trabajadores el dinero correspondiente a esos años.

La empresa pagó esas cantidades pero no actualizó las tablas salariales. “El Comité de Empresa de Mercedes entiende, como es lógico, que tras el fallo del Tribunal Supremo donde se estima que los salarios abonados en 2008 y 2009 no fueron los correctos, es evidente que las bases tomadas para los años 2010, 2011, 2012 y las actuales no son tampoco correctas”, explica el delegado de ELA y presidente del comité Igor Guevara.

Ante esta situación, los trabajadores de la planta de Vitoria plantearon demandas individuales en el juzgado para reclamar el abono de esos retrasos. En octubre se celebró el primero de los juicios, y poco después la empresa interpuso una demanda colectiva contra el comité de empresa y las secciones sindicales “con la intencionalidad única y exclusiva de intentar aplazar los pagos”.

El juicio ha quedado visto para sentencia tras la celebración de la vista oral, en la que las partes han ratificado su postura. Si el fallo es favorable a los trabajadores/as, éstos seguirán adelante con las demandas individuales; en caso contrario, el comité recurrirá la decisión, anuncia Guevara, que es muy crítico con la actuación de la empresa en este asunto. “La dirección está empeñada en dilatar en el tiempo el cumplimiento de una sentencia que es de mero sentido común”.

Mercedes se enfrenta al pago de unos tres millones de euros por los salarios atrasados dejados de pagar.

### LABURREAN / BREVES

#### • Tres semanas de huelga en las gasolineras de Bizkaia

Las y los trabajadores de las gasolineras de Bizkaia están de huelga indefinida desde el pasado 21 de diciembre. La huelga, convocada por los sindicatos ELA, LAB, CCOO, UGT y USO, está teniendo un seguimiento generalizado. A pesar de haber superado las tres semanas de huelga la patronal del sector sigue sin presentar una propuesta válida para negociar. El objetivo de la convocatoria es lograr un convenio con contenidos y que se respete lo que se firme, dejando sin aplicación la reforma laboral.

#### • Dos accidentes laborales mortales en lo que va de año

No se han cumplido ni dos semanas desde que comenzó el 2013 y ya llevamos dos muertos a consecuencia de sendos accidentes laborales. El 8 de enero un trabajador de la empresa vizcaína Montajes Metáli-

cos Jauregui, de 41 años, falleció en un accidente mortal en Tubacex de Amurrio, al quedar atrapado entre los tubos que estaba soldando cuando trabajaba con una máquina elevadora. Las plantillas de ambas empresas protagonizaron sendos paros para solidarizarse con la familia del fallecido y denunciar este accidente mortal. El día 10, por su parte, falleció un transportista de 39 años atrapado por su propio vehículo cuando se encontraba realizando labores de carga y descarga en las instalaciones que la multinacional Arcelor Mittal tiene en Olaberria.

#### • Kutxabankek 263 lanpostu suntsitu ditu

Kutzaz kutxa begiratzuz gero, enplegu gehiena suntsitu duena BBK izan da: 134 postu. Jarraian Kutxa dator, 99; eta azkenik, Vital Kutxa, 30 lanpostu. Suntsitutako batzuk erretiratu direnen postuak izan dira, baina beste zati handi bat behin-behineko kon-

tratuak zituzten langileenak izan dira. Langile horietako batzuk lanean urteak eman arren, bat-egitearen ondoren kaleratuak izan dira. Euskal gazte horiek langabe bihurtu dira “gizarte osoaren onerako izan behar zen bat-egite zoriontsu baten ondorioz”, hala esaten baitzuten bategite/pribatizazio horren bultzatzaileek.

#### • Lan sindikalaren kriminalizazioaren kontra

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek 2011ko urtarrilaren 27ko greba orokorrean identifikatutako 18 lagunen aurkako salaketa bertan behera uztea exijitzen dute. Fiskalak pikete informatiboa osatzen zuten 18 lagunen aurka 3 urte eta 9 hilabeteko kartzela zigorra eskatu du. Inputatuei elkartzuna adierazteko elkarretaratzea egin zen urtarrilaren 10an, epaiketa egunean, Bilboko Justizia Jauregiaren aurrean.

[www.ela-sindikatu.org](http://www.ela-sindikatu.org)

**ELA** **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao  
Tel. 94 403 77 00  
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

[www.ela-sindikatu.org](http://www.ela-sindikatu.org)

Franqueo concertado  
nº 08/207